

Deszentratzen duten hizkuntzak

■ María Reimóndez

Idazlea, itzultzailea eta aktibista feminista

Artikulu hau idazten hasi naizenean Karnatakan nago, Indiako hegoaldean. Estatu honetan duela hogeita hiru urte jarri nituen lehen aldiz nire oinak, eta sustraiak bota nituen lur hartan. Bizitzaren gorabeheren poderioz, gertakariak Tamil Nadu ondoko estatura eraman ninduten pixkanaka, gaur egun nire bigarren etxetzat jotzen dudana Indiako kultur eta hizkuntz eremura, hain zuzen.

Baina Karnatakara itzuli beharrean naiz, hor hasi bainintzen deszentratzen, emakumeekin lan egiten eta beraien hizkuntza ere ikasten. Kasualitateak itzularazi nau hona berriro, hainbat urte geroago, Indiako hainbat lekutako antolakundeentzako generoari eta elkar laguntza taldeei (ELT) buruzko ikastaro bat ematera.¹ Ikastaroak saio praktikoak ditu; ekipoek formakuntza moduluko ariketak egiten dituzte emakumeekin, eta tokiko antolakundeko kideek laguntzen diete, elkar ulertzeko hizkuntz bitartekariak behar baitira. Baina kontua da nik ez dudala bitartekaritza hori behar; bizitzak eta testuinguruak eragin dute gaur egun ni izatea interpretazioa behar ez duen bakarra, eztabaidak inolako arazorik gabe jarraitzeko gai bainaiz (jakina, ezin dut kanarera –Karnatakako hizkuntza– hitz egin, baina bai ulertu).

Atzerritar pasaportearen zuen bakarria neu izanik, neu nintzen etxean zegoen bakarria ere.

Artikulu hau idazten hasteko une egokiena hauxe zela pentsatu nuen, argudiatu nahi dudanerako abiapuntu garrantzitsua hauxe zela: hemen, Karnatakan, sentitzen dudana etxetasun sententzia, estatuek edo beste mota bateko botereak esleitzen dizkiguten dokumentu eta agiriak gaitzen dituenak. Bestalde, honakoa argi uzten duen frogaren enpirikoa bat ere bada: lehenbailehen erabaki beharrezko falazia hutsa dela hegemonikoak ez diren hizkuntzak besteak baino 'ezgaiak' direla dioen diskurtsoa. Izan ere, boterearen falazia suntsitzailerik horrek aliantzak hausten ditu eta mundua beste oinarri batzuen gain eraikitzea eragozten du. Hortik abiatu nahi dut, bada.

Hizkuntz hegemonia eta derrigorrezko elebakartasuna

Hizkuntz hegemoniaren kontzeptua ez da berria,² baina nire ustez oso esanguratsua izaten jarraitzen du galegoaren testuinguruan sarritan erabiltzen diren beste termino batzuekin kontrastatzerakoan. Ez soilik 'hizkuntza minorizatua' bezalako falaziak saihestegatik –Galizian, adibidez, galegoa da oraindik herritar gehienek hizkuntza (baina, azken inkestek arabera, atzeraka doa, datu oso kezagarriekin)³–, baizik eta, batez ere, gertatzen ari zaiguna analizatzeko eta bide batez zapalkuntzari aurre egin eta egoera eraldatzeko lanabes teoriko konplexuagoa eskaintzen digulako.

Hegemoniaz hitz egitea botereaz eta egoeraz hitz egitea da. Orobat, hainbat osagai sinboliko eta materialen bitartez eraikitzen den sistema batez ere hitz egitea da. Galegoaren kasuan, osagai sinboliko handienetako bat hizkuntzaren 'ezgaitasunaren' edo hura hitz egitearen 'atzerapenaren' diskurtsoa da (botere-hizkuntza hautatuz atzean utzi daitekeen akats edo orban bat). Baina hegemoniaren eraikuntzak alderdi material argi bat dauka: irakaskuntzatik erabileraraino,

desabantaila nabaria da galegoa hitz egitea. Egun, oraindik, haurrek ez daukate eskubiderik hezkuntza bere ama hizkuntzan jasotzeko, eta gizarte pertzepzioaren eta eskubideen inguruko atzerakadak ikaragarriak dira.

Hegemoniaren kontzeptuari beste bat erantsi nahi nioke, ‘derrigorrezko elebakartasuna’. Termino hori Adrienne Richengandik deszentratzen dut, zeinek derrigorrezko heterosexualitateaz hitz egiten baitzuen hauxe ageriaz uzteko: hori ez dela ‘hautaketa’ edo ‘orientazio sexual’ bat, baizik eta patriarkatuaren formulazioaren oinarrian dagoen botere sistema bat.

Era berean, botere heteropatriarkal eta kolonialaren botere sistema bat da ‘derrigorrezko elebakartasuna’, zeinaren bidez sinestarazten zaigun pertsona guztiek elebakar izateko jomuga izan behar dutela eta hizkuntza batzuek beste batzuek baino aukera gehiago eskaintzen dizkietela emakumei (itzuliko naiz aurrerago puntu horretara). Hizkuntza bat baino gehiago hitz egitearen onurei buruz dauden probak –neurolinguistikatik hasi eta etikaraino– suntsitzeko gai den botere lanabes bat da. Horrez gain, botere (neo)kolonialen esportazio pozoitsuenetako bat ere bada, beren berragerpen neoliberal kapitalista modernoan hizkuntza bat eta bakarra behar baitute (ingelesa, batez ere) bateratu eta konkistatu ahal izateko, hau da, saldu ahal izateko. Ikusmolde liberal horrek ezin hobeto egiten du bat heteropatriarkatuarekin; izan ere, askoz hobeto saltzen da, azken buruan, bi genero daudenean eta bitartekaritzarik behar ez duen hizkuntza bakar bat dagoenean.

Hizkuntz hegemoniak eta derrigorrezko elebakartasunak zentroak eta periferiak sortzen dituzte. Eta, sortzen dituzten bizi-baldintza materialekin, hauxe eskatzen digute emakume

Hegemoniaz hitz egitea botereaz eta egoeraz hitz egitea da. Orobat, hainbat osagai sinboliko eta materialen bitartez eraikitzen den sistema batez ere hitz egitea da

batzuei: hiritartzat har gaitzaten –esate baterako, espainiar estatuan–, gure hizkuntzak baztertu behar ditugu. Era berean, maila zabalagoan, botere-hizkuntzetara sarbiderik gabeko komunitateak esplotatu egiten dituzte –esate baterako, beren natur ingurunearen suntsipenarekin–, erabakiak hartzen dituztenek ez baitituzte solaskide gisa ere hartzen. Botere egitura horien bizkarrezurra, hala ere, ez dagokie soilik estatuei. Feminismoa bezalako mugimenduek ere patroï hori jarraitzen dute kasu askotan, eta ez dute hizkuntza aintzat hartzen interseksionalitate osagai gisa.

Hizkuntzaren eta generoaren arteko interseksioa, orokorrean, kontuan hartzen ez den alderdi bat da, galegoaren kasurako Xosé Mosquera Carregalek koordinaturiko *Lingua e xénero* liburuko ekarpen interesgarriek demostratu zuten bezala.⁴ Hizkuntza sexista aztertzen bada ere –hizkuntza hegemonikoetatik hartutako adibideekin egin ohi da, ez baitira beti beste hizkuntzatan aplikagarriak–, ez da aztertzen hizkuntz hegemoniaren eta derrigorrezko elebakartasunaren eta generoaren arteko interseksioak nola bultzatzen dituen emakumeak komunitate askotan beren berezko hizkuntza alde batera uztera. Galegoaren kasuan, argi dago hizkuntzaren estereotipoak –hizkuntza ‘basatia’, ‘landugabea’– emakumeak beren hizkuntza uztera presionatzen dituen aliantza bat eragiten duela; izan ere, emakume horiek ‘finak’ izan daitezen espero da, eta gizonek baino zigor handiagoa pairatzen dute hizkuntza hori hitz egiten badute. Beste komunitate batzuetan, bereziki Mendebaldearen presio koloniala jasaten dutenetan, ingelesak (edo dagokion hizkuntza kolonialak) genero identitate irekiagoa eskaintzen dielako falazia dago, eta horrek oso modu negatiboan eragiten dio emakumeek beren hizkuntze-kin duten harremanari.⁵

Horrenbestez, hizkuntz hegemoniaz eta derrigorrezko elebakartasunaz hitz egiteak, analisirako ez ezik, ekintzarako tresnak ere ematen dizkigu. Izan ere, posizio ezberdin asko onar ditzakeen oinarri komun bat ezartzen du: modu horretan, leku batean hegemonikoak izan daitezkeen hizkuntzak

beste batean ez hegemonikoak izan daitezke (adibidez, frantsesa Afrikan eta Quebecen, edo gaztelania espainiar estatuan eta Estatu Batuetan). Konplexutasun geruzak eragiten ditu. Eta premiazkoa zaigu, hizkuntz eta kultur aniztasuna kapitalarentzako eta kultur kolonizazioarentzako oztopo nagusia delako; pentsamendu esparruak mugitzeari ekiten dion oztopoa, hain zuzen.

Mugitzen saiatuko naizen lehen pentsamendu esparrua hauxe izango da: galegotik auzi horien analisi politiko feminista bat egitea. Hizkuntz hegemoniari eta derrigorrezko elebakartasunari aurre egiteko aukerak aztertzen saiatuko naiz, kanpotik –eta, batik bat, espainiar estatuko gainerako ‘nazionalismoetatik’– gutxitan ulertua izan den komunitate linguistiko eta politiko batetik abiatuta. Izan ere, komunitate horren identitatea historia luzeko eraikuntza positiboa –galegoari berari ‘esker’ mamitutako gizarte mugimenduen errebeldia eta aliantzekin, hain zuzen– ezkutatzen duten estereotipoek eraiki dute.

Deszentratzea egitasmo politiko gisa

Hizkuntz hegemonia eta derrigorrezko elebakartasuna galegotik eta feminismotik eta, batez ere, nire hizkuntzak eskaintzen didan potentzial subertsibotik aztertzen hasteko, lehenik eta behin, nire burua kokatu behar dut; izan ere, kokatzea funtsezkoa da posizio hegemonikoetatik askatzeko. Denok dugu posizio bat, eta posizio hori esplizitatzen denean soilik lagun gaitzake aliantzak sortzen, Chandra Talpade Mohanty teorialariak erakusten digun bezala.⁶ Falozentrismoarekin, zuri edo heterosexual izatearekin gertatzen den bezala, ‘beste’ gisa izendatutako posizioetan daudenak daude soilik behartuta une bakoitzean ‘norenak diren’ adieraztera. Nik aurkako defendatzen dut: gure hegemoniaren alderdi horiek dira esplizitazio handiagoa eskatzen dutenak, ikusezin izateari utzi eta elkarrizketagai eta pribilegioen kritika bilaka daitezten.

Azaldu berri dudan hori guztia deszentratze prozesu personal baten ondorio da. Artikuluaren hasieran esan bezala, duela bi hamarkada baino gehiago hasi nuen prozesu hori, India hegoaldera joateko erabakia hartzerakoan. Kasualitatearen eta borondatearen fruitu izan zen erabaki hori. Kasualitatea nire ezaugarri fisikoetan datza, txikitatik esaten baitidate ‘indiar itxura dudala’, eta oso irudi lanbrotsua sortzen zidan leku horrekiko jakin-mina piztu baitzuen nigan. Munduko beste edozein leku izan zitekeena ezagutzeko hasierako grina horri zera erantsi zitzaion, gauzeekin gustura ez egotearen konstatazioa, bidegabeba iruditzen zitzaidan guztiaren aurka jotzeko joera. Bidegabekeriak ulertzeko nituen zailtasunek eraldaketan parte hartzeko nahia piztu zidaten, eta, esparru horretan, nerabezarotik bertatik, premiazkoena Ipar-Hego desberdintasunari begiratzea iruditu zitzaidan. Izan ere, ez zitzaidan buruan sartzen munduan 795 milioi lagunek gosea sufritu eta jendeak beste aldera begiratzea. Pentsamendua urteen poderioz gero eta konplexuagoa bilakatu bazait ere –entzuteak, behatzeak eta gorputza politika kokatzen den lekuan kokatzeak ematen duen ezagutzari esker–, oraindik ere nigan jarraitzen du ulertezintasun horrek.

Nire prozesuak, beharbada, bizitzaren unerren batean ‘pertsonea pobreen’ alde zerbait egitea erabakitzen duten borondate oneko beste pertsona zuri batzuenaren antza izan dezake (ikus bedi ironia). Baina, nire kasuan –eta ez diot horri bitxitasun kutsurik eman nahi, halako prozesuak, egon, esperimentatu nahi dituen edozeinen eskura daudela uste baitut–, munduarekiko nire deserosotasuna edo beste leku batera joateko erabakia ez dute eragiten telebistako albistek ikusteak sortzen duen ustekabeak edo moja ikastetxeetan misioez hitz egiten entzun izanak. Borondate hori nire posizio-kontzientziatik beretik ere sortzen da, emakume, ez heterosexual eta galegodun gisa subjektu ez hegemonikoa izatearen nire esperientziatik. Jakina, horrek guztiak ez dio baliorik kentzen zuria izateari, Mendebaldeko herrialde batean jaio eta mundu kolonialik onenean hezia izateari –modu

askotara transmititutako iruditeria batekin, horren ohiko emaitza ‘zuri salbatzailearena’ baita-. Baina honetaz kontzientziaz jarraitzen dut: ernamuin hori desberdina da eta prozesu desberdin batera eramateko potentziala dauka, hainbeste gustatzen zaigun ‘kooperatzaile’ ideia horretara iritsi beharrean, aktibismo feminista dekolonialera iristen baita.

Ez dut zalantzarik nire borondatea ez litzatekeela inoiz existituko galegodun gisa dudan nire kontzientziarik gabe, hauxe erakusten baitit: munduan arrakalak daudela, hainbat zapalkuntza geruzari aurre egin behar dieten komunitateak eta bereziki emakumeak daudela. Distantziak distantzia, ni ez nintzen Indiara joan nire burua ‘aurkitzera’ edo ‘ezagutzera’, etxetik lezioaren zati bat ikasita baineraman ordurako. Horrenbestez, nire bidaia, hasiera-hasieratik, pakete turistikoa edo yoga ikastaroetan saltzen zaizkigun bidaia tipiko neokolonialen oso bestelakoa izan zen (India kolonizazio exotikorako helmuga paregabea da). Borondate horretatik abiatuta, sustraiak botatzen eta beste leku askotan etxeak eraikitzen hasi nintzen, emakumeekin aliantzak eginez.

Ongi dakit leku oso desberdinetako emakume oso desberdinekin dudan ulerkuntza sentsazioa gure hizkuntz bestetetasunean sustraitzen dela. Oinarri komun horrek elkarri entzuten laguntzen digu, eta entzuten dugunak eraldatu, deszentratu egiten gaitu. Hauxe baita mendebaldar feministezko egitasmorik funtsez-

Hauxe baita mendebaldar feministezko egitasmorik funtsezkoena: erreferentzia epistemologikoen esparrua aldatzea, geu baikara ‘gure besteen’ esplotazioa eraikitzen ari garenak

koena: erreferentzia epistemologikoen esparrua aldatzea, geu baikara ‘gure besteen’ esplotazioa eraikitzen ari garenak, batik bat erreproduzitzen dugun eta beraiek modu zuzen eta asotarikoan kritikatzuten duten iruditeriaren bitartez. Geu gara

horiek defentsarik gabeko biktima gisa eraikitzen ditugunak, beren lorpen eta lanen jabe egiten garenak eta posizio horren onurak erauzten ditugunak.

Diskurtso horien adibideak hainbat eta hainbat esparrutan ikus ditzakegu. Sistema heteropatriarkal eta koloniala beti saiatzen da mendebaldar emakume zurien ahotsak erabiltzen, esate baterako, ‘zapalkuntza patriarkal’ gisa errepresentatzen den ‘zapiari’ buruzko edozein eztabaidatan arrazakeria babesteko, arropa bat emakumeek esateko dutena baino garrantzitsuagoa bailitzan. Konplizitatea, sarritan, muturrekoa da. Hitza hartzen duten feminista zuriak oso gutxitan konturatzen dira arropa horren benetako esanahiaz zapalkuntza arrazistaren pean bizi diren emakumeen testuinguru horretan, eta, era berean, gu dagoeneko ‘askatuta’ gaudelako diskurtsoa indartzen dute. Historia eta testuingurua ezabatzen dira, ‘emakume musulman’ bezain termino absurdoekin bateratzen da, gehiengo kristauko testuingurutik kanpora batere zentzurik ez duena; jakina, testuinguru kristau hori bilakatzen da neutroa eta ikusezina, identitate hegemonikoa. Auzi hori argi ikusten da zera pentsatzen badugu: inori ez zaio burutik pasatzen ‘emakume kristau’ terminoa erabiltzea kristautasunaren analisi batetik kanpora, eta are gutxiago termino bakarrean bateratzea etiopiar emakume koptoen egoera eta finlandiar emakume kristau batena. Horixe egiten dugu, hain zuzen, ‘emakume musulman’ terminoa erabiltzen dugun bakoitzean, Afrika iparraldeko berber baten esperientziak Afganistango emakume batenekin bateratu (eta hori klase, hizkuntza, arraza edo bestelako botere bektoreen inguruko auzietan sartu gabe). Gure besteak ‘zapaldu’ gisa seinalatzeko joera horren beste ondorio ez oso ikusgarri bat hauxe da: mendebaldar patriarkatuari gero eta indartsuagoa izaten laguntzen dio, emakume zuriei, ‘kristauei’, gehiengo hegemonikoaren komunitatekoei argi utziz ez dugula dagoeneko zertaz kexatu, gaitz guztiak ‘beste atzeratu’ horiei gertatzen baitzaizkie. Inolako ezbairik gabe, konplizitate oso arriskutsuaz ari gara.

Baina, adierazi dudan bezala, feminismo zuriak indar handiz erreproduzitzen du diskurtso hori, batzuetan modu so-tilean eta inkontzienteki. Adibidez, feminismoaren ‘historia’ Ilustraziotik ondorioztatzen dela aspertu arte errepikatuz (Celia Amorósen gisako espainiar feministen ohiko teoriak); edo beren ‘hiru olatuekin’, Hegoaldeko aktibisten mugimen-du teoriko eta praktikoekin –horietako batzuek, gainera, patriarkatuaren aurkako erresistentzia-zko historia askoz ere zaharragoak dituzte gurea baino– inola ere bat ez datozenak.

Hizkuntz hegemoniak, izan ere, asko egiten du egoera horren alde, eta itzuliko naiz aurrerago horretara. Izan ere, hizkuntza ez hegemonikoen arteko komunikazio gabeziak burbuila kolonial hori sortzen laguntzen du, zeinetan uste baita feministek hizkuntza eta aro historiko jakin batzuetan soilik pentsatu eta idatzi zutela. Emakume jakin batzuk ba-karrik irakurtzen eta entzuten ditugu, eta leku bateko edo besteko ‘emakumeen aurrerapenaren’ aitzakian, diskurtso koloniala eramaten jarraitzen duten jardueri eusten diegu. Hizkuntz hegemonia esportatzen dugu aldi oroz, sarritan diskurtso koloniala eramaten baitugu beste lekuetara: esa-te baterako, ‘garai bateko koloniekkin’ soilik atxikitzen den nazioarteko kooperazioan, estatu kolonizatzaile guztietan gertatzen baita. Adibidez, espainiar estatuan, Latinoamerika-ekin kooperatu ohi da, iragan ‘partekatuaren’ zein ‘hizkun-tza komunaren’ aitzakiengatik. Jakina, zer esan ugari egongo litzateke iragan partekatu horri eta nazioarteko kooperazioak hainbat neokolonizazio molderekin –diskurtso mailan, batik bat– duen konplizitateari buruz, baina oraingo honetan hiz-kuntza indigenetako aktibistak isilarazten dituen ‘hizkuntza komunaren’ falazia bakarrik azpimarratuko dut.

‘Hizkuntza komunaren’ ideia horrekin, beste leku batzue-tatik etorri eta gurekin bizi direnak ere ahazten ditugu. Beste horiek botere hizkuntza jakin batzuk hitz egitera derrigor-tzen dituzten ‘kulturaniztasun’ eta ‘transnazionalismo’ ideiak sustatzen ditugu, ‘enplegarritasun’ eta ‘integrazioaren’ ai-tzakian. Bistakoa da bere berezko hizkuntza mespretxatzen

duen komunitate batek eta bere barneko hizkuntz eta kultur aniztasuna zapuzten duen estatu batek zailtasun handiak izango dituela kanpotik iristen direnak balioesteko, eta berezko hizkuntzen bazterketan oinarritutako ‘integrazioa’ inposatzen saiatuko dela, horrek sor dezakeen tentsio eta deserrotzearekin. Auzi horien ulerkuntza, nire kasuan, jarraian azalduko dudan bezala, funtsean galegotik abiatzen da, eta horregatik ezinbestekoa zait testuinguru pusketa batekin jarraitzea.

Hizkuntza abiapuntu gisa

Hizkuntza bakoitzak bere testuingurua eta bere historia sortzen ditu, bere komunitateak sortzen ditu. Galegoa bezalako hizkuntzak hitz egiteak ‘ezertarako ez duela balio’ errepikatzen zaigun arren, hauxe argudiatu nahi nuke: gure hizkuntzaren historiagatik beragatik, galegoak baduela gogoan hartzea merezi duen balio erantsia.

Hizkuntz historiografia egiteko asmorik gabe, besterik gabe datu aski ezagun eta onartuekin jokatzuz, galegoa ez-botere

Galegoa bezalako
hizkuntzak hitz egiteak
‘ezertarako ez duela
balio’ errepikatzen
zaigun arren, hauxe
argudiatu nahi nuke:
galegoak baduela
gogoan hartzea merezi
duen balio erantsia

hizkuntza bat da antzinako garaietatik. Erdi Aroko literatur distiratik aurrera, bere lurraldean bertan posizio esanguratsua galdu zuen. Gaztelania botere geruzen bidez sartu zen, hasieratik zatiketa argi bat ezarri: botere gaztelania-hiztuna eta ez-botere galego-hiztuna.

Horrela hasten da botere ekonomiko eta estrukturalaren deslotura historia bat. Gure inguruko beste hizkuntza batzuetan ez bezala, galegoa

industriatik, kulturatik, administratibotik eta eliz botereetatik kanporatu zuten. Lau mendetan zehar botererik gabeko jendearengan biziraun zuen, batez ere nekazari eta, geroago,

langileengan. Boteregabetze prozesu horrek hainbat diskriminazio egoera eragin zituen, gaur egun ere irauten dutenak eta lehenago laburki aipatu ditudanak. Baina abantaila epistemologiko bat ere badu, hizkuntzak berak interseksionalitaterako funtsezkoak diren alderdi batzuk dagoeneko badituelako; beraz, 'ahalduntze' hizkuntza bat izan daitekeela iruditzen zait. Alegia, Galizian ez-legitimotzat jotzen da hizkuntzatik pasatu gabe gizarte askapenerako mugimendurik –feminismotik ekologiara eta, zer esanik ez, klase mugimendurik– sustatzea.

Historia horren guztiaren ondorioz, galegoaren komunitate aktibistentzat funtsezkoa da beste osagai horien eransketa. Izan ere, ideia honetatik abiatzen gara: hizkuntza guztiz atxikita dago gabetze politikoarekin, eta lanabes inklusibo bakarra da pairatzen ditugun diskriminazio ezberdinak erroitik gainditzeko. Lanabes inklusiboaz hitz egiten dut hemen, beste leku batzuetan garatutako diskurtso 'nazionalekin' alderatuta, Galizian berezkoa den nazio identitatearen eta hizkuntzaren arteko loturak eragiten baitu beste osagai batzuk (erlijioa, arraza edo jaiolekua) bigarren mailara pasatzea. Beste osagai horiek ez bezala, hizkuntza ikas daiteke, eta beraren bitartez identitate mota guztiak adieraz daitezke. Hizkuntz komunitateak galegoa hitz egiten duten pertsona guztiak hartzen ditu galegotzat, jatorria kontuan hartu gabe. Eta horrek ez du zerikusirik duela ez asko Galizian gaztelaniaren inguruan sortutako mugimendu faxista batzuekin, 'Galicia Bilingüe' kasu, «galegoak baino galegoago» izatea defendatzen baitute,⁷ topiko folkloriko despolitizatuetan oinarritutako identitate galegoaren ikusmolde esentzialista horretatik abiatuta, eta klase-erreakzio argi batekin demokraziaren iritsieratik eskubide oso argal batzuk eskuratzen ari garen zarpailen aurrean. Núñez Feijóok horien babesa izan zuen lehen aldiz Xuntako presidente aukeratu zuten hauteskundeetan, eta galegoa ezabatzeko hainbat neurri aplikatu zituen (galegoaren probak kentzea administrazioan, hezkuntzan galegoa ikasgaien %33 barregarri batera murriztea, matematika eta zientziak hizkuntza horretan irakasteko debeku zuzenarekin). Neurri horien aurka borrokatzen jarraitzen

du oraindik gizarte zibilak. Diskurtsoaren ikuspuntutik, beraz, galegoa defendatzea identitatearen ikusmolde arrazista eta esentzialisten aurka egitea ere bada.

Hizkuntzaren eta horrek identitatearen ideiarekin duen loturaren historia horrek eragin du diskurtso batzuk mugimendu nazionalista galegoetan sakonago sartzea testuinguru bereko beste batzuetan baino. Zehatzago, diskurtso feminista tradizionalki askoz errazago sartu da esparru nazionalista galegoan beste leku batzuetan baino. Prozesu horren funtsezko elementu bat, zalantzarik gabe, hauxe da: gure letren figura fundazionala emakume bat izan zela, Rosalía de Castro. Eta, gainera, ez edonolako emakumea. Ondoren jasan zuen manipulazio patriarkal eta espainolista alde batera utzita, Rosalía de Castrok XIX. mendetik idatzi zuen XXI. mendean hitz egiten dugun interseksionalitateaz, genero kritika eginez, baina baita klase kritika, kritika antiklerikala eta, zenbait idazkitan, antikoloniala ere. 80ko hamarkadatik aurrera feministok kultur eta politika esparrurako berreskuratu dugun figura bat da, gero eta indar handiagoa hartzen ari dena, jasan behar izan zuen ikuspegi eta hil-jantzi patriarkal eta espainoletik urrundua. Horrek guztiak ez du esan nahi, noski, kultur esparru galegoa matxismotik, arrazakeriatik edo kolonialitatetik libre dagoenik; baina ildo horiek, hizkuntzaren historiagatik beragatik, nabarmenago geratzen dira eta ez dira hain legítimoak.

Jakina, panorama horretan badira arrakalak eta tentsioak. Diskurtso feminista galegoak talka egiten du hainbatetan diskurtso nazionalista patriarkalarekin. Rosalía de Castro aipatu dut: hil ondoren nazionalismo patriarkalak bereganatu eta *naiciña chorona* (amatxo negartia), *santiña* bilakatu zuen, orduko politikari eta pentsalariei hainbeste komeni zitzairen Galizia sufritzailearen irudi, alegia (gaur egun ere irauten duena, bestalde). Rosaliar herentzia eta irudiaren inguruko borroka bizirik dagoen arren, kritikarako plataformek (feministek, jakina, halakoak ez diren beste guztiak patriarkalak baitira) plazaratzen dituzten lanek sarritan autore eta kritikariengan sortzen dituzten erreakzio pizgarriak ere aipa

nitzake. A Segá (www.asega-critica.net) literatur kritikarako plataformak erregulartasunez jasotzen ditu erasoak modu ireki edo estalian: adibidez, egile baten libururen bat sexista izateagatik negatiboki kritikatzeko den bakoitzean, ohikoa da egile horrek edo bere gertukoren batek beste eremu batzuetatik kolektibo horretako kideak zeharbidez erasoko dituen predikuak idaztea.⁸ Ikaskuntza kolektiboko esparru bat da hori ere, literatur kritikari guztiak gizonak zirela egiaztatzea, alegia. Baina, lehen aipatzen nuen esparru horretan, Liburua-ren Galaren azken aldian, sareko literatur ekimen onenaren saria jaso zuen A Segak.⁹ Horrek zera esan nahi du, erresistentziak erresistentzia, kultur diskurtso eta jarduera feministen aintzatespen kolektiboa egon badagoela.¹⁰

Gutxiago aipatzen den beste arrakala bat diskurtso kolonial eta dekolonialarena da. Diskurtso koloniala literatura eta teoria nazionalista zein feministan agertzen da, baita batzuetan mugimendu nazionalistak Galiziaz proiektatzen dituen irudietan ere.¹¹ Adibide garbi bat

Inditexen ‘arrakastarena’ da, enpresa galegotzat hartzen baita, nahiz eta horrela identifikatzeko arrazoi handirik ez dagoen.¹² ‘Enpresa galego’ horrek Hegoaldeko emakume eta neskak esplotatzen ditu, aski frogatua dagoenez.¹³ Mugimendu feminista galegoak aztertu du gai hori, baita dokumentaletan ere (esate baterako, *Fíos fóra* egin berria; www.fiosfora.gal/Ver-Fios-Fora), baina, segur

aski, lan dekolonial handieneko esparrua *Implicadas no Desenvolvemientos* inguruan kokatzen da; duela ia hogeitun urte fundatu nuen erakunde horren xedea, hain zuzen, elkartasun feminista galego-hiztun gisako gure alteritatearen ikusmolde ireki eta eraikitzailetik garatzea da. Erakunde horretan,

Diskurtso koloniala literatura eta teoria nazionalista zein feministan agertzen da, baita batzuetan mugimendu nazionalistak Galiziaz proiektatzen dituen irudietan ere

tokiko erakundeen bitartez bazterketa edo pobrezia egoeran bizi diren emakumeekin (batik bat Tamil Nadu eta Etiopian) aliantzak ezartzeaz gain, batez ere pentsamendu kolonialean eragiten saiatzen gara, gure ahotsa gure besteen ahotsarekin harremanetan jarriz. Hori dela eta, Hegoko aktibistekin dugun lankidetzak iraunkorra da. Lankidetzak horretan, itzulpenak funtsezko zeregina betetzen du. Horretaz jardungo naiz artikulua azken zatian.

Aliantza berriak

Jardun subertsibo eta politikoan, itzulpena ez da ia inoiz funtsezko tresnatzat jotzen. Gehienez ere, 'kulturen arteko zubi' gisa hitz egiten da horretaz, hizkuntzen eta komunitateen arteko erlazioen ikuspegi *buenista* baten baitan, beti ere. Ia inoiz ez dira aztertzen itzulpenaren eta kolonizazioaren arteko konplizitateak, edota itzulpen fluxuek botere-lerro argiak ere zein puntutaraino jarraitzen dituzten. Izan ere, pentsamendu kolonialetik sarritan oharkabean pasatzen den gakoetako bat da mundua 'ezagutzen' dugula pentsatzeko joera dugula; baina, oro har, ezagutza gehienetara ez dugu sarbiderik, eta itzulpen fluxuek askotan kultur kolonizazio nabaria adierazten dute. Horrela, hizkuntza hegemonikoak erreproduzitzen dira ez hegemonikoetan, baina aurkako norabideko itzulpenek, aldiz, kutsu folkloriko edo testimoniala hartzen dute.

Baina, hizkuntza ez hegemonikoetako hiztunok badakigu, eguneroko zapalkuntzazko esperientziaren poderioz, hizkuntza aniztasuna aberastasuna dela, eta hizkuntza bakoitza errealitatea ulertzeko modu bakar batera sarbidea ematen digun inbutu bat bezalakoa dela. Hizkuntza hegemonikoetako hiztunak ez dira auzi horretaz ohartzen, eta Gayatri C. Spivak-ek 'Can the Subaltern Speak?' (Hitz egin dezake subalternoak?) idazkian definitzen duen bezala, honelaxe pentsatzen dute: mundua bere osotasunean uler dezaketela eta gauza esanguratsu guztiak hizkuntza 'garrantzitsuetan' hitz egingo direla.

Hizkuntza ez hegemonikoetako emakume hiztunentzat, falazia fundazional hori are ahulagoa da, zalantzarik gabe. Badakigu beste jakintza batzuk badaudela (gureak), eta hain zuzen horiek ezagutzean oinarritzen dela munduaren birformulazio politikoa. Bitxia da oso ahots batzuek ‘literatura unibertsala’ gure hizkuntzetara itzultzeko premia defendatzea, horrek Mendebaldeko gizon zuri idazleek hizkuntza hegemonikoetan idatzitako literatura esan nahi baitu. Kontraesana agerikoa da: guk geuk literatura unibertsalaren definizio hori onartzen badugu, nola espero dezakegu beste batzuk gure kulturez interesatzea? Bada garaia guztia zentro hegemonikoen begietatik ikusteari uztekoa, ‘garrantzirik gabekoak’ iruditzen zaizkien –baina gure hizkuntz komunitateentzat garrantzi handia duten– gauza asko ez baitituzte itzultzen. Ideia horretatik abiatzen da itzulpengintza feminista dekolonialaren lana, neuk ere, batik bat *Implicadas* no *Desenvolvimento* erakundearen baitan, egiten dudana.

Artikulu honetan esplikatzen saiatu naizen abantailatik abiatzen naiz: kultura galegoa kultura *gonzo*-a dela, alde batetik hegemonikoa, mendebaldarra den heinean, eta bestetik ez hegemonikoa, gure hizkuntzaren egoeratik. Hortik abiatuta ezar ditzakegu bizio kolonialak saihestuko dituzten harremanak, baldin eta pentsamendu deszentratuagoa, gure egoerarekiko deserosoagoa garatzen badugu, funtsezkoa guztiz, bai guretzat (biktimismoekin amaitu eta hiritarrentzako diskurtso kitzikagarriagoa ezartzeko), bai gure besteentzat ere. Galizian, modu horretan, gure literaturaren egoera ez hegemonikoa baliatu genezake aldameneko sistema hegemonikoei agian interesatzen ez zaizkien egile emakumeak itzultzeko.¹⁴

Gure posizio konplexutik itzulpen feminista eta dekolonialen egitasmo konplexuak ere jar genitzake abian. Itzulpen feminista eta dekoloniala, beraz, itzultzen dena eta nola itzultzen den auzitan jarri nahi duen jarduera politikoa da. Hizkuntza hegemonikoen posizioa ere birformulatzen du: bitartekari huts bilakatzen dira, eta ez itzulpenen azken helmuga. Baina itzulpen feminista eta dekolonialak itzultzeko

moduarekin kritikoak izan behar dugula ere erakusten digu, testuek erakusten duten ikuspegi kolonial eta patriarkalari arreta jarriz (zer gertatzen da, esate baterako, genero gramatikalik ez duen euskaratik galegora testu bat itzultzen denean?).

Literatur itzulpenen esparrutik at, egitasmu horiek inoiz baino garrantzitsuagoak dira. Gure hizkuntzatan entzuten gaituztenean, gure egoeren konplexutasuna ulertzen eta bostere diskurtsoei aurre egingo dieten sareak josten lagunduko diguten aliantzak ezartzen dira; adibidez, gure besteei buruzko diskurtso mediatikoa deseginez eta gure leku zehaztutako mugimendu feministetan eraginez. Izan ere, lan deszentratzaile hori gabe, emakumeen baldintza sozioekonomikoak aldatzeko ezin saiakerak ez du aurrera egiteko aukera handirik, ez gure komunitateetan, ez beste edozein lekutan.

Prozesu horiek kidezarekin eta afektuekin ere lotuta daude, pentsamendu eta jarduera feministaren bi funtsezko esparru, hain zuzen. ‘Diskurtsoaren’ politika patriarkalaren aurrean, horrenbestez, feminista dekolonial, deszentratu eta hizkuntzagabetuek espazio konplexuak eskaini behar ditugu, eskua luzatzeak batzuk besteen gainean egotea inplikatzeko ez duen espazioak, hain zuzen.

Baditugu, dagoeneko, bidean egindako hainbat urrats, hainbat adibide. Beste asko geratzen dira oraindik. Artikulu hau amaitzen ari naizela, nire olerkiak tamilerara itzuli berri dira, Thamizhachi Tangapadian nire lagun eta olerkari feminista eta hizkuntzaren aktibista handiaren itzulpenari esker. Urrats txikiak dira, baina erraldoiak aldi berean, gu guztiontzako gero eta kontrakoagoa den testuinguru honetan. Usurbilen izandako jardunaldiaren modukoek ezagutzen dugun mundua zabaltzen dute eta guztiok bizitza –hitzaren zentzurik zabalenean– jokoan jartzen dugun prozesuetan aurrera egiteko adorea ematen digu. 🌸

[Erredakzioan euskaratua]

Oharrak

1. www.implicadas.net/programas-no-sur/gam
2. Ikus, adibidez, honako liburua: Ives, Peter (arg.) (2004): *Language and Hegemony in Gramsci*, Pluto Press.
3. Ikus <http://praza.gal/movimentos-sociais/8017/o-galego-deixa-de-ser-a-lingua-habitual-da-maioria-da-poboacion>
4. www.udc.es/export/sites/udc/snl/_galeria_down/documentospdf/Libro_Lingua_e_Xenero.pdf
5. Ikus, adibidez, Arundhati Roy edo Meena Kandasamyren argudiaketa problematikoak hizkuntzari buruz. Azken horrek ingelesa, dalitentzat, tamileraren aurrean liberazio hizkuntza bat dela defendatzen du, azken hizkuntza hori kastek markatuta dagoela argudiatuz (www.livemint.com/Politics/ItCo2HSpKjf98VvW8X4yAO/Dalits-look-upon-English-as-the-language-of-emancipation.html). Halako baieztapenek Sukirtarani edo P. Sivakami bezalako emakume dalit idazleen tamilerazko idatzizko tradizioa lurperatzen dute (www.womensweb.in/2016/07/p-sivakami-6-dalit-women-writers-must-read).
6. www2.kobe-u.ac.jp/~alexroni/IPD%202015%20readings/IPD%202015_5/under-western-eyes.pdf
7. Korpuskulu frankista horrek errepresentatzen duenaren adibide batzuk: https://elpais.com/diario/2010/09/15/galicia/1284545901_850215.html; https://elpais.com/diario/2009/02/09/galicia/1234178288_850215.html
8. Ikus Susana Sánchez Arínsen erreseina horri egindako iruzkinak (www.asega-critica.net/2017/04/a-transicao-como-mentira.html) eta eremu argiki matxista batean –BiosBardia– nire eleberrietako bati egindako ‘kritika’ hau: <https://biosbardia.wordpress.com/2015/02/04/dende-o-conflito-as-aventuras-da-santa-viaxeira>
9. Sari horiek Asociación de Escritoras e Escritores en Lingua Galega eta Asociación Galega de Editoras e a Federación Galega de Librarías elkarteek antolatzen dituzte batera; beraz, gobernu ez dagoen arren, badute kutsu instituzionala.
10. Horren adierazle ere bada, bestalde, Real Academia Galegak emakume kopuru barregarria duen arren, horiek guztiek feminista gisa aurkezten dutela beren burua argi eta garbi, eta zentzu horretan erreferentziazko figurak direla.
11. Oraindik landu gabeko eremu bat da hori, baina nabarmena da orientalismoa Vicente Risco bezalako egileengan, eta arrazakeria Inma López Silva bezalakoengan. María Xosé Queizánek ere, teoriari feminista garrantzitsuenetakoak, behin eta berriro erreproduzitzen du gu/besteak banaketaren ideia islamaz edo ‘emakume musulmanez’ hitz egiterakoan.

12. Inditexekiko obsesio kolektiboa sekulakoa da, ia-ia A Coruñaaren existentzia bera ere multinazionalari egoztera iristen diren aberrazioak argitaratzerainokoa (www.lavozdegalicia.es/noticia/coruna/coruna/2017/09/24/empuje-inditex-moderniza-ciudad/0003_201709H24C2991.htm?utm_source=facebook&utm_medium=referral&utm_campaign=fbgen).
13. Duela gutxi Brasilen haur langileengatik isun batez gainera, BBCk Turkian pertsona errefuxiatuen esplotazio kasu bat eman zuen argitarara (www.rtve.es/noticias/20161024/reportaje-bbc-implica-proveedores-inditex-mango-empleo-irregular-refugiados-sirios-turquia/1431141.shtml).
14. Galizian, merkatu arrazoiengatik, eta salbuespeak salbuespen, nekez itzultzen dira dagoeneko gaztelaniaz argitaratuta dauden liburuak. 'Anormaltasun' marka bat bezala ikusten da hori, baina, nire aburuz, gure geure literatur kanona sortzeko eta kanon hori ahots subertsibo, emakume ez mendebaldarren ahotsez betetzeko ate ireki bat da.